



BAKEA ETA BIZIKIDETZA (2016ko azaroa) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia izan da EAEko herritarren iritzia eta jarrerak Euskadiko bakeari eta bizikidetzari buruz.

Landa lana 2016ko azaroaren 9a eta 11 bitartean egin zen.

BAKEAREKIN ETA BIZIKIDETZAREKIN LOTUTAKO GAIAK

Batez ere nazioarteko terrorismoa eta Euskadiko bake prozesua dira kezka-iturri

Herritarren %72k diote oso kezkatuta daudela nazioarteko terrorismoarekin eta gerrekin, %62 Euskadiko bake prozesua eta bizikidetzarekin, %48 immigrazioa eta errefuxiatuekin eta %31 arraza eta erlijio desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzarekin.

EUSKADIKO BAKE ETA BIZIKIDETZA PROZESUA

Alderdien arteko akordioa eta presoen egoera hobetzea dira gakoak

Herritarren %52 oso edo nahikoa interesatuta daude Euskadin bake eszenategia garatzen ari den moduari buruz; gai honi buruzko interes mailak beheranzko joera txiki bat izan du 1999etik hona egindako neurketa desberdinetan.

Behin betiko bakea lortzeko oztopo nagusiak, ondokoak dira: alderdi politikoak ez direla gai adostasun nahikora iristeko gai honi buruz (%38) eta Espainiako Gobernuak ez duela pausorik ematen presoen egoera hobetzeko (%36). Hirugarren lekuan aipatu da ETA ez dela desegin eta ez dituela armak entregatu (%18).

Epe motzean prozesuan aurrera egitea ahalbidetuko luketen urratsak lirateke alderdi politiko guztien arteko akordioa (%39), presoen hurbilketa (%24), ETA desarmatu eta desegitea (%19) eta sortutako minaren gaineko autokritika (%11).

Hainbat eragileren jarduerarekiko iritzia

EAEko herritarrak oso kritikoak dira Espainiako Gobernuak bake prozesuan duen jarduerarekin. %56k diote gaizki edo oso gaizki ari dela eta %30ek hala-hola, %9k bakarrik diote ondo edo oso ondo ari dela.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, herritarren %39k uste dute ondo edo oso ondo ari dela, %44k hala-hola, eta %9k gaizki edo oso gaizki.

ETAren jarduerari buruz, %15ek uste dute ondo edo oso ondo ari dela, %38k hala-hola ari dela, eta beste %38k gaizki edo oso gaizki.

Alderdi politikoei buruz, herritarren ustez bakea lortzen gehien laguntzen ari dena EAJ da (%50ek uste dute asko edo nahikoa laguntzen duela) eta ondoren EHBildu (%41). Atzetik datoz Podemos (%21), PSE (%18) eta PP (%5). 2014ko datuekin alderatuta, bakea lortzeko egiten dutenari buruzko iritzia hobetu egin da alderdi guztiei buruz, salbu eta PPri buruz, hori okerragotu egin baita.

ETAK emandako urratsen nahikotasunari buruz galdetuta, herritarren %49ren iritziz ezinbestekoa da ETAK armak entregatzea eta desegitea, Espainiako Gobernuak egiten duenaren zain egon gabe, eta %36ren ustez, aldiz, ETAK jada eman ditu nahikoa pauso eta orain Espainiako Gobernuak egin behar luke zer bait.

EAEko herritarren gehiengo zabalak (%92) uste du Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin adostu beharko lukeela bake eta bizikidetzaren politika; halaber, gehiengoak (%89k) egoki ikusten du Eusko Jaurlaritzak ETAren armagabetze prozesuan parte hartzea.



Herritarren ustez oso garrantzitsua da legegintzaldi berri honetan Eusko Legebiltzarrean bake eta bizikidetzari buruzko mahaia osatzea, alderdi guztien parte-hartzearekin; zehazki 8,2 puntuko garrantzia eman diote 0tik 10erako eskalan.

EUSKO JAURLARITZAREN BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA

Planaren helburuekiko adostasun zabala

EAEko herritarrek Bake eta Bizikidetzarako Planaren helburuekin duten adostasun maila oso altua da: %53 ados daude eta %7 bakarrik daude kontra; %3 ez daude ez ados ez kontra eta %30ek ez dute Plana ezagutzen.

Planaren helburu zehatz batzuk aipatuta, 10etik 9 inguru ados daude Planak helburu horiek bilatzearekin. Halaber, %89k uste dute Jaurlaritzak legegintzaldi berrian Plan berri bat sustatu beharko lukeela.

Eusko Jaurlaritzak biktimen inguruan daraman politikari buruz, %37k uste dute ondo ari dela, %5ek gaizki ari dela, %30ek ez ondo eta ez gaizki eta %21ek ez dute gaiari buruz ezer entzun.

Herritarren %74k ondo baloratzen dute Eusko Jaurlaritzak autokritika egin eta onartu izana biktimei arreta handiagoa eman behar ziela.

ESPETXE POLITIKA

Egungo espetxe politikarekiko balorazio txarra

EAEko herritar gehienak oso kritikoak dira Espainiako Gobernuaren espetxe politikarekin; soilik %9k ikusten dute ondo, %55ek gaizki, %16k ez ondo eta ez gaizki, %14k ez dute ezer entzun gaiari buruz eta %6k ez dute erantzun. Gai honi buruzko iritzia 1999an eta 2014an jasotakoa baino okerragoa da.

Herritarren %81en ustez Espainiako Gobernuak, legearen barruan, ETAko presoen birgizarteratzea erraztu beharko luke.

Espetxeetako eskumenari dagokionez, herritarren %75ek uste dute Euskadira transferitu beharko litzatekeela, Gernikako Estatutuak aurreikusten duen bezala. %9 bakarrik daude transferentziaren kontra.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 800 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,5$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2016ko azaroaren 9a eta 11 bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 18an